

IRITZBA
Unai Villena

ERREPORTAIA
Tren geltokia
historian zehar

BERBETAN
Julian Bilbao
Arjentinan
bizi den
elgoibartarra

KIROLA
Sanmigeldarrak
Euskadiko bolo
txapeldunak

BARREN

1997ko urriaren 31a
V. urtea 212, zkia.

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

ELG11113AR



Trena Elgoibarren
**Iraganerako txartela,
mesedez**

"Bidaiarik luzeena ere pauso batekin hasten da" Ekialdeko esatera



Allenetik

Garbitasun
Enpresa
Mekanizatua

Elgoibarko garbitasun enpresa berriak atak irekitzen dizkizu



Eskoba-aspiragailua

Hautsik atera gabe
garajeak eta azalera
handiak garbitzeko
primerakoa.

KÄRCHER

mekaniza
dezagun
garbitasuna

Azalera lehorrak
eta hezetasun
handiko zoluak
aspiratzen dituen
aspiragailua.



Garbigailua


Marmol, terrazo eta
azulejoko zoluak
garbitzeko eta
distira emateko
aparta.



Beste zerbitzu hauek ere eskaintzen ditugu:

- Obra bukaerak
- Kristalak
- Atariak eta eskilarak
- Bulegoak etab.

Eska ezazu aurrekontua inolako konpromezurik gabe.
Informazioa nahi izanez gero, deitu **74 12 31** telefonora.



UNAI VILLENA

Atal hau ez da RARENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dntse. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, hesteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Ez dakit

Afaltzen ari nintzela, telebista ikusten aritu naiz: iragarkiak, iragarkiak, iragarkiak... azkenean programa bat, berriak: hilketak, istripu latzak... 60 pertsona hil dituen gizon bat, afaltzera gonbidatzen zituen biktimak, afaria beraiek izango zirela esan gabe, kipularekin jaten zituen... biktimen argazkiak... gorpurik gabeko buruak... katea aldatu dut. Bere auto eta guzti ibaiak zeraman emakume bat laguntza eske... Telebista itzali egin dut. Harrigarria da gaur egun telebista piztean ikus daitekeena. Aspaldian desagertu zen kazetaritzaren etika, fikzio eta errealtatearen arteko mugekin batera. Inoiz bururatu ez litzaizkigukeen hilketen berri eman digute, guzti-guztia erakusten digute, argi dago erakutsi gabe erakustearenak ez gaituela erakartzen. Hor aurrean eseri eta gure atenzioa deitzeko edozerk balio du, zenbat eta miserableagoa hobe, inertziak lotzen gatzazkiolako telebistari. Gehienok oso-osorik irensten dugu interesgaria bailitzan, interesik ez duela jakinik, ohi-turarengatik edo.

Jakin badakigu, edo jakin beharko genuke, telebista munduko miserietara jotzen duen atea dela. Duela denbora askotxotik, baina azkenaldian batez ere, ugarituz doaz famatuen bizitza sentimentala eta sexuala pausoz pauso eta atalka kontatzen dizkiguten programak,

munduko azken hilketa edo hondamendi naturalak detailerik txikiena ere galtzeke deskribatzen digutenak, ezer argitzen ez diguten debeteak, non partehartzaileak nor duen errespetu gutxien erakusten saiatzen diren...

Hau guztia gutxi balitz, tartean puFF!!blizitatea ere badago...

Bizitza hain difertsifikatua izanik, penagarria da zein dibertsifikazio gutxi azaltzen zaigun telebistan. Ez nuke ezeren adierazgarri gisa ikusi nahi; produktu hutsa da. Tresna den aldetik, erabilera egokia emanez gero langungarria ere izan liteke. Baina kontsumismo basatiaren tresna da, manipulazioarena, gutxi batzuek, ino! az ere ez geurea, hala saldu nahi badigute ere. Telebista gure menpe, ala gu telebistaren menpe? Ez dakit.

Norbanako bakoi tza desberdina da, baina honi dagokionez bi multzo egitekotan, Karakateko antena izorratzean zer eginik gabe gelditzen diren pertsonak, eta ezeren falta igartzen ez dutenak desberdindu nitzuke. Lehenek kezkatzeko arrazorik izan lezakete eta bigarrenek irakurle edo loti fin izaten jarrai lezakete. Dena den, kontsola gaitzean guztiok: gure bizitzan zerbait gaizki badoa, zabal dezagun telebista deituriko dekadentziaren ate hori. Amodio kontuan edo osasunez okerrago dabilen edonor aurkituko dugu edonoiz.

"Gure bizitzan zerbait gaizki badoa zabal dezagun telebista deituriko dekadentziaren ate hori. Amodio kontuan edo osasunez okerrago dabilen edonor aurkituko dugu edonol".



Ba RREN



Natarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR

"Er 74 41 12


Publizitatea:

1r 74 37 04

Faxa: 74 37 04


ARGITARATZAILEA  Elgoibarko Izarra

LAGUNTAILEA  Elgoibarko Udala

Zuzstunntaa  Ainhoa Lodoso

ERREDAKMO KONTSEILAJA  Ainhoa Alberdi,
Rosa Agirregabiria

KAZETARIAK Ainhoa Lodoso, Jasone OSOTO

PUBLIMTATEA  Miren Moreno

MAKETATZAILEA  Mikel Cornejo

ADMINISTRAZIOA  Amaia Marttn

M. Angeles Ortuoste, Rala Alvarez

KOLABORATZAILEAK  Piti Agirreazaldegia,

Gemma Agirregomezkorla, Itziar Ajuria,

Ion Arrieta, Agurtzane Arriola,

Eduarne Bilbao, M. Angeles Exposito,

Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza,

Ane Guille, Jon Gurrutxaga,

Antton Iriondo, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Javi Leen,

Jokin Martinez, Juan Luis Mugertza,


Ongarri Zine Kluba,

Pello Rubio, Julian Segundo, Ixldor Solupe,

Leire Urkidi, Iban Urizar

Unai Villena eta Julen Zabaleta

BANAKETA ARDURADUNA IMattol Larrañaga

1NPRIMATEGIA  Gerta Koop. E.

TIRADA  4.000 ale

LEGE GORDAILUA  SS-1-038/92

ISSN  1133-021X

*Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.*



fundazioa

** * * * * fundaciñ'n*

INDANOBAT
MAQUINAS HERRAMIENTA

Apraiz baserria

Fusko Jaurlaritzako Kultura sailaren baitan Ondare Historiko Artistikoaz arduratzen den atala dago. Ondaren Historiko Artistikoaren atal honek bere bulego, langile eta arduradunak ditu. Halaber, Aldundiek bereak dituzte.

Eusko Jaurlaritzako eta Aldundietako "Ondareek" bakoitzari dagokion esparruaren inbentarioa (eliza, baserri, errota, etab.) egina dute. Inbentario biak aztertu ondoren esan dezakegu Apraizgo errota gain baserriak ere balio historiko artistiko handia duela.

Baserriak zenbait horma, leiho eta habe XV. mendeko bukaerakoak eta XVI. mendeko hasierakoak kontserbatzen ditu.

Urriaren 24ko ostiral an'atsaldetan Apraizek zenbait adituren bisita izan zuen (besteak beste, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak), orain arte esan dugun guztia berretsiz.

Pello Arrieta

BARENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK alaletan adierazitakoen erantzukizunik.

GALDERAK

• Hirigintzako zinegotziari galdera hau egin nahi dio Urasandiko guraso talde batek: "**Maiatzean Udaletxetik esan ziguten Pilar ikastetxeko atzeko pasabideari buruz egin genuen eskaera kon-tuan hartuko zutela eta, bidea eskilarekin egiteko asmoa bazogela. Noizko? Gure uste apalean Pilarreko gurutzebidean sortzen den trafiko arazoa asko arinduko litzateke bidea egingo balitz, guraso asko autoz joaten baitira umeak ja-**

sotzera. Bidea eginez gero, ez genuke auto beharrik izango".

Hirigintzako burua den Jose Mari Oruesagastik zera erantzun digu:

"Terreno hoiek ez diaz Udaletxianak; Pilar ikastetxekuak dia. Udaletxiak berez ezin dau bide hori ein terrenuak ez diazelako beriak. Guk ein deza-kegun gauza bakarra da Pilar ikastetxeko ardura-dunei komentatu euren ikasleen gurasoen partetik bidia eitzeko biharra ikusten dala eta bidia ein deixen animau. Guk ezin dou besterik ein".


KEXAK

• Jubilatutako kexa hau azaltzeko eskatu digu: "Pilar ikastetxeko tuneletik gora 23 bat eskilara daoz. Lehenengo egunian jubilatu bat eskilarak jaisterakuan lurrera jausi zan. **Barandilarik ez dao apuro batian heltzeko.** Zer kostatzen da ba, barandilatxo bat jartzia?"

II.110111

• Irakurle batek honako hau argitaratzeko eskatu digu: "*Gurpil gainean tente erreportaian az,aldu ziren hiru elgoibartarrak txalotu nahi ditut* bizitzaren aurrean duten indarrarengatik. Gainera, bat egin nahi dut egunen batean kalean oinez ibiltzeko gauza izango diren ametsarekin. Anirno !"

BAI, ESAN?



Martin Garagarza
Eh ztaria

Ehiza garaian gaude bete-bete. Uso-pasean dabilta egun hauetan ehiztariak. Ehizaren inguruan iritzi kontrajarri asko dagoen arren, oraingoan ez goaz gai horri buruz hitz egitera, paseko usoaren ehizari buruz baizik. Horretarako **Martin Garagarzari deitu diogu. Martin ehiztari amorratua da.**

Zenbategian behin joaten zara uso-pasera? - Hego haizea dagoenean, asteburuetan batzuetan edo astegunetan besteetan. Azken aldian Madarixara joaten naiz goizeko 7etarako edo. Madarixara ez dago ehiza-posturik. Lehenago Mendarora eta Gatzagara joaten nintzen eta hemen postuak daude. Postu batean egon ahal izateko, aurrez zozketa egiten da. Beste egun batean Soria eta Errioxa artean dagoen Cameros izeneko koto batean egon nintzen baina ipar haizea tokatu zen eta ez genuen ezer hartu.

- Hego haizea beharrezkoa al da usoa hartzeko? Hego ikutua behintzat bai. Haizea oso indartsua bada usoa alde egiten du kostaldera. Beste batzuetan mendi arteko haranetatik sartzen da. Ehiztariak haran horretan hadaude asko ehizatuko dute baina beste haran batean dauden tiro bat bera ere bota gabe gera daitezke. Azken aldian oso altu ari da pasatzen usoa.

- Ba al dago arautegirik uso-paseari buruz? Bai. Batetik, gehienez hiru tiroko eskopeta erabil daiteke eta postak debeatuta daude. Ezin daiteke erreklamorik erabili eta ehiztarien artean 30 metroko tartea egon behar da gutxienez.


- Noiz arte luzatzen da uso-pasearen sasoa? Pilarikatik azaroaren hasierara arte. Ondoren birgarroa eta oilagorren sasoa dator. Ipar aldean eguraldi txarra dagoenean hasten dira sartzen.

- Ehizak txori askoren bizitza arriskuan jartzen duela diote ekologistek. Zer diozu? - Usoen zentsoa egin dago eta duela 10 urte baino gehiago dago. Gainera, hemen pasean eta kontrapasean bakarrik ehizatzen da. Txori txikiak ez dira ehizatzen eta lurtean geratzen diren kartutxoak jaso egiten dira. Beraz, ehiztarien artean gero eta kontzientzia handiagoa dago.



ESKERTZA

1997ko urriaren 24an 79 urte zituela hil zen **SEGUNDA JUARISTIZABALETA**ren sendiak bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





Trenaren historia, historiaren trenea ez galtzeko

Txup, Txuppppp! Noiz hartu zenuen azkeneko tren? Gaur egun badirudi gazteek astebukaeretan eta jubilatuek astegunetan izan ezik beste inork ez duela tren erabiltzen. Kontua da, garai batean tren geltokia herriaren erdigunea zela. Elgoibartik egunero 12 tren pasatzen ziren bidaiarientzat eta beste horrenbeste merkantziarekin. Xarma berezia duen garraioa da eta guk nolabaiteko otnenalditxoan egin nahi izan diogu lerro hauen bidez. Goiko argazkian, 1898an Elgoibar-Deba linearako eskuratutako lehen Mkomotora, "Aurrera" izenekoa ikus dezakegu. Gaur egun Azpeitiko trenaren museoan dago.



jose Oteizak 78 urte ditu eta 1934-54 urteetan faktore lanetan ibili zen Elgoibarko tren geltokian, hau da, merkantzia trenak ekartzen eta eramaten zutena markatzeaz arduratzen zen. Carlos Gonzalezek, berriz, datorren hilaren 4an 65 urte beteko dituenak, ia bizitza osoa pasa du geltokiz geltoki. Elgoibarrera iritsi aurretik beste hainbat herritan ibili zen era guztietako lanak egiten, beti ere trenen lotuak, eta 1993 urtera arte geltokiko arduraduna izan zen. Bien aitzak tren geltokiko langileak izan ziren; hortaz, zainak izan beharrean trenbideak dituztela esan daiteke. Azken 60 urteetako istorioa ondo baino hobeto ezagutzen dute trenen dagokienean eta eurekin hitzegin nahi izan dugu, oroitzapenak berreskuratu eta horien berri emateko asmoz.

San Pedroko lantegirako ikatza, hileroko feriarako txerriak, baserritarrentzako lastoa, arraina.... Dena trenez garraiatzen zen garai batean. Ez zegoen beste erarik ez eta garraiorik ere. 1950eko hamarkadan etrepidea eraiki zenean merkantzia tren asko jaitsi zen. Bidaiariek, berriz, gero eta gehiago erabiltzen zuten tren, baina 1964 urtetik aurrera beherakada nabarmena izan



Ezkerretik hasita bigarrena Carlos Gonzalez da. Atzean merkantzia tren bat ikus daiteke.

zuen. Izan ere, garai hartan hasi ziren Bilbo-Behobia autopista eraikitzen eta horrek trenbidearen gainbehera ekarri zuen.

Merkantzia garraiatzen zuten trenek arraina ekartzen zutenean geltokira, kaneteroek kajak hartu, karreta gainean jarri eta zaldiari arre eginaz kalera jais-ten ziren, arraina herriko arrandegietan banatzen zutelarik. Beste batzuetan, arrain saltzaileek jasotzen zuten zuzenean arraina trenetik eta kalez kale ibiltzen ziren, "arrain freskoa!" oihukatzen eta erosleak erakartzen. Trenaren si lbo- ta-hotsa eta geltokiko txirrina entzutean, antxintxika hurreratzen ziren kaletarrak eta baserritarrak, bagoie- tan zer etorriko jakin nahian.

Ahoz aho eta urtez urte, esan de- naren arabera, bada istorio benetan bitxi bat. Izan ere, badirudi behin ba- serritar batek zerbaiten premia zuela eta trena lehenbailehen iristea nahi zuen. Hortaz, zer egingo eta geltoki- ra jaistea okurritu zitzaion. Gelto- kian, txirrina jotzen hasi zen, trenari abisua eman eta haren etorrera au- treratuko zuelakoan.

Beste egun batean Casto Otei- za, estazioko arduraduna izan ze- nalc, Jose Oteizaren aitak, trena las- toz lepo etorri zela ikusi zuen eta baserritarrak nola edo hala abisatu nahi izan zituen. Hortaz, arnasa hartu eta eztarritik oihu izugarria

atera zitzaion, auzo guztietako baserri ezkutuenean ere entzun zutena. Laster batean jaitsi ziren baserritarrak lasto bila estaziora.

Ordurik eza

Trenak beti izan du berandu iriste- ren fama. Gaur egun badirudi gauzak zertxobait hobetu direla alde horretatik baina lehen normalena markatutako or- dua baino beranduago iristea zen. Arra- zoia? Askok egongo ziren seguruena bai- na badago bat benetan bitxia dena. Bi-

txia eta gezurra, noski. Esaerak dioenez, trenbideak egin zituzte- nean, injineru eta topografoekin batera joan zen bidea markatze- ko karea bota behar zuten langi- lea. Honek, esku batean karearen boltsa zeraman eta bestean ardoz betetako zahatoa. Karea botatzen zuten bakoitzeko, atsedena hartu eta zahatotik edaten zuten. Den- bora aurrera joan ahala, langilea mozkortu edo ardo-bizitu egin zen eta kareaz bide zuzena mar- katu beharrean, errebueltaz josi zuten trenbidea. Ordutik trenbide bihurriak ditugu han eta hemen, trena sosisuz ibiltzera derrigor- tzen dutenak, abiadura gutxitu eta, nola ez, geltokian zain d.au- denek pazientziaz itxoin behar izaten dute. Halere, lurrin-trak- ziozko tren haien ordez elektri- koak jarri zituztenean 1929. urte- an, gauzak hobetu egin ziren eta gaur egungo AVE eta bestelakoak ikusita, trena garraio bizkorra eta puntuala ere badela.

Eibartik Elgoibarko erromeriara

Domeketan erromeria izaten zen Elgoibarren. Entzute handiko dantzal- dia izan ohi zen eta bertakoak ez ezik, inguruko herrietako jende asko ere hu- rreratzen omen zen. Guztiak trenez etortzen ziren. Ikusgarria izaten zen domeka arratsaldeetan geltokia jendez gainezka ikustea. Gaur egun astebuka- eretan antzeko zerbaitek gertatzen da.

1.903. urtean trena elgoibarko geltokira iristen.





Bi argazki hauen artean 30 urte inguruko aldea dago.

Ezkerreko argazkian, ezkerretik hasita: Jorge Nrez (orratz-zaina, t), Evelio Coca (orratz-zaina) eta Carlos Gonzalez (geltokiko arduraduna). Eskuineko argazkian: Carlos Gonzczlez, Juan Mekolalde eta Jose Oteiza (faktoreak) eta Antonio Eizagirre (geltokiko arduraduna gaur egun).

Izan ere, zapatu arratsaldeetan Eibar, Ermua, Deba eta inguruetatik jende gazte asko eta asko inguratzen da Elgoibarrera, tabemaz taberna sortzen den giroan parte hartzeko asmoz. Gai honen inguruan Carlos Gonzfflezek esan digunez, arazoak gertatu izan dira, "dirua aurreztu nahi zela eta, zapatu arratsaldeetan lanera ez joateko esan zidaten. Beraz, egun horretan geltokian ez zen inor egoten. Trena iristen zenean, zain zeuden ehundaka gazte sartzen ziren bagoietara. Trena topera joaten zen eta, noski, biletea saltzeko inortxo ere ezin zen jende artean ibili. Azkenean, merketzeko plana garesti ateratzen?".

Karakateko tunela egin zenean bertatik pasatu zen lehen trena Pullman bat izan zen.

Pullman dotoreak

Nork ez ditu gogoratzen egurrezko bagoiak, egurrezko eserleku haiekin? Xarma berezia zuten baina, egia esan, gaur egungoak baino deserosoagoak ziren. Josek esan bezala, "oin trenak askoz ere suabio ibiltzen dia. Trenan ezaugarria zan mugimendu haura oin ez dago. Trenbidiak ere gero eta gehixo zementuzkuak dia eta ez egurrezkuak eta horrek danak komodidadia ematen dau biatatzeko". Halere, bai lehen eta bai orain, kategoria desberdineko trenak zeuden. Bazegoen bat Pullman deitzen zena. Bagoi doto-

reak zituen baita saloi bat ere, barra eta guzti. Josek kontatu digunez, garai batean, behin baino ez zen pasatzen Pullman trena Elgoibartik, "eta espezial pasatzen zan San Pedroko fabrikatik jefe inportante batek eitzen zabalako lan".

Eta kartoizko bileteak? Geltokian bertan erosten ziren eta, "klaki", makina hots berezia nabarmentzen zen saltzaileak biletea zulatzen zuenean. Orain paperezko bileteak izaten dira eta seilo bat jartzen diote gainean.

Urruti daude andenera sartzeko 10 zentimo ordaindu behar izaten zeneko garaia. Askok eta askok ez zuen ezagutuko Elgoibarko estazioan egon zen kantina. Han txutxerriak, aldizkariak eta bestelakoak saltzen ziren. Gaur egun oraindik ere bidaiarientzat 10 tren inguru pasatzen da egunero Elgoibartik baina merkantzien trenik ez da jada pasatzen. Izan ere, errepidea egin zenean gauzak aldatu egin ziren. Bidez bidez autoz edo kamioiz hasi zen jendea garraiatzen eta trenaren funtzioa mugatuta geratu zen. Atera kontuak: Jose eta Carlosek ezagutu zuten Elgoibarko geltokian zazpi langile izan zireneko garaia: geltokiko arduraduna, bi faktore, hiru orratz-zain eta txartel-saltzailea. Gaur egun langile bakarra dago eta berau egun erdiz. Baina ziur gaude oraindik ere nobeletako, pelikuletako eta ametsetako bizipen erromantiko asko eta askoren eskenatokia izaten jarrituko duela trenak. Bizipen erromantikoena baina baita beldurrezkoena eta intrigazkoena ere.... Ez?



Igarri al duzu Ibolsalren beherakada?



M HARMEN ARZAK

60 urte, etxekoandrea


Ez, ez daukat dirurik burtsan. Nire ahizpak aurtan sartu du lehen aldiz dirua burtsan eta sartu orduko 10.000 pezeta galdu zituen. Beti eman izan dit beDurra.



ANGELA RERNEDO

69 urte, etxekoandrea

Ez. Sekula ez jata burutik pasau! Daukagun lau pezeta kaja de ahorros baten edo bestian eukitzia igual xamarrada. Etxeko gauzak kartilari eruan izan ditzut beti.



JUAN ELIAS GISASOLA

50 urte, kalitateko langilea

Bai, igarri dot, ez asko baina zeozer bai. Aspalditxikan dakat ohituria boltsan zeozer inbertitzeko eta ondo dixenian gauzia, gustora.



BEGOÑA DE LA FUENTE

37 urte, administraria


Ez, ez daukat dirurik burtsan inbertitzeko. Niri burtsa asko gustatzen zait eta egunero jarraitzen dut eta garai hatean egin nituen inbertisio txikiak.



IOSU ETURA

37 urte, tabernaria

Ez daukat ezer ere boltsan. Gainera ez dakitx zela dixen hori eta beti dao arriskua. Dana dala, hateronbaten aholkuakin igual inbertiduko neuke zeozer.



MANUEL FERNANDEZ

43 urte, pieza lapeatzailea

Ez, honietarako lehenengo boltsikoan izan behar da dirua! Nahikoa lan daukagu dirua kartilan mantentzearekin, batez ere "Etxe Haundia", Sigma itxi zigutenetik.



**ELEKTRONIKA
ELEKTRAGA1LUAK**

Ubitarte, 3
Tel-Faxa: 74 14 87

Eskaintza paregabea elektragailuetan. Aprobetxa ezazu eta zatoz bizkor!

- 400 reholuzioko ASPES garbigailua, garbiketa hotzean 34.900 pta.
- 1.000 reholuzioko SUPER SER garbigailua, panelablea 65.900 pta.
- Combi ELECTROHAUS, 2 MOTORE, 190X55 cm. 59.900 pta.
- Combi BALAY, 2 motore, soft linea, 186X59,5 cm. 79.900 pta.
- CORBERO hozkailua, 2 ate, 139X55 cm. 43.500 pta.
- SAMSUNG mikrouhina, 17 litro, altzairuzko barnekaldea 16.900 pta.
- ELECTROHAUS sukaldea, 3 su, labea eta grilla gasdunak 24.900 pta.
- EDISON telebista, 14", urrutiko mandoo, menua pantailan 25.900 pta.
- SANYO telebista, 21", teletestua, pai-secam 49.900 pta.
- PHILIPS telebista, 25", stereo, teletestua, pal-secam 89.900 pta.
- GRUNDIG telebista, 28", stereo, teletestua, pal-secam 89.900 pta.
- GOLDSTAR bideoa, urrutiko nandoct, menua pantailan 27.900 pta.

OTA jartzen denean orduko 60 pta. ordaindu beharko dira aparkatzeagatik

Aldiko aparkaleku mugatuari edo OTAri buruzko ordenantza fiskalak onartuta daude dagoeneko. Ordenantza hauek denbora tarte jakin batean aparkatzeagatik zenbat ordaindu beharko den ezartzen dute. Oraindik zehazteke dago noiz hasiko diren ordenantza hauek aplikatzen baina 1998ko urtarrilaren lerako indarrean egongo dira. Hortaz, data horretatik aurrera OTA martxan jartzeko moduan egongo da.

OTA kale hauetan jarriko da:

Trenbide, Pedro Migel Urruzuno, Aita Agirre plaza, Santa Ana, San Inazio, Ubitarte eta Antonio Arrillaga. Kale hauetan aparkatu nahi duenak txartela erosi beharko du zeregin horretarako jarriko diren makinetan. OTAko kaleetan bizi diren auzotarren tzat Udalak baimen bereziak egingo ditu eta 150 pta.ko kostua izango du urte osorako. Baimen hori duten auzotarrek egun osoan aparkatzeagatik 30 pta. ordaindu beharko dute. Aste osorako bonoa ateratzeko

aukera ere izango da 200 pta.ren truke. Gainontzeko erabiltzaileentzako prezioak beheko taulan zehazten dira. Baimendutako denbora gaindiltzen dutenei isuna jarriko zaie. Makinatan 500 pta. ordainduz gero isuna anula daiteke. Badira ezer ere ez dutenak ordaindu behar izango: motorrak eta bizikletak, zamalanak egiten ari diren ibilgailuak, aparkaleku erreserbatue t akoak, minusbal it uenak, zerbitzu ofizialekoak, alkateak baimendutakoak, osasunekoak, etah.

OTAREN PREZIOAK

- Auzotarrentzako prezioak

Urte osoko baimena. 150 pta.

Eguneko tarifa 30 pta.

Asteko bonoa.....200 pta.

Gainontzeko

erabiltzaileentzako prezioak

20 minutu 20 pta.

Ordu bat..... 60 pta.

Ordu eta erdi..... 100 pta.



Nitxo berrien zozketa azaroaren amaieran egingo da

Olasoko kanposantua- ren sarreran, Olaso baserria zegoen lekuan eraikitzen ari diren nitxoen obrak bukatzeaz daude. Udaleko arduradunen esanetan, "burdinezko atea ja-

ri dute aste honetan". Jaki- na denez, nitxoak lurraz- pian eraiki dira, ilaran. ilara bakoitzak lau nitxo ditu bata bestearen gainean. Lur gainean, berriz, zelai handi bat egongo da eta lurtean

lapidak jarriko dira. Obren lehen fase honetan 268 nitxo eraiki dira eta dagoeneko 220 salduta daude. Beraz, banaka batzuk baino ez dira geratzen. Azaroaren amaiera aldera egingo da

nitxoaren zozketa erosi-koen artean. Zozketa Udal areto nagusian egingo da eta parte hartu ahal izango dute izen-emateko oinarriak eta klausulak bete dituztenek. Aipatutako oinarriak joan den asteleheneko plenoan onartu ziren. Lehen fase honen aurrekontua 36.823.812 pta.koa da. Hasi- era batean 220 nitxo eraiki- tzea bazen asmoa, azke- nean 268 egiteko aukera izan da, Olasoko baserria- ren hondakinak ez botatze- ko egindako aldatetei es- ket Udalak onartutako oi- narrien arabera, nitxo ba- koitzaren prezioa 150.000 pta.koa da eta kontsezioa- ren epea 99 urtekoa.

Domusantu eguna

Ohi tura denez, bihar, azaroak 1, Kanposantura joan eta hil direnak gogora ekartzeko eguna izango da. Goizez zein arratsaldez Kanposantua irekita egon- go da eta urtero bezala, hi- lobiak garbi-garbi eta lorez apainduta agertuko dira.



Azaroaren erdi alderako bukatulla dira Eguneko lentroko ohrak

Jubilatuen Etxean txoko bat egokitzen ari dira Eguneko Zentroa kokatzeko. Momentuz igeltseroek bukatu dute euren lana eta arotzak hasi dira martxan dagoeneko. Ateak jarri eta gero pintoreen txanda izango da, guztiari behar duen ukitua emateko. Eguneko Zentroarekin batera beste txoko bat ari dira egokitzen Jubilatuek bilerak egiteko gela izan dezaten.

Gogoratu dezagun Eguneko Zentroa gaixo dauden hirugarren adineko pertsonen zuzendua dagoela. Goizeko 10ak eta arratsaldeko 6ak bitartean Eguneko Zentroan


begirale eta zaintzaile espezializatuen ardurapean pasatuko dute eguna izena ematen duten gaixoei. Proiektu honek helburu bikoitza du: alde batetik, gaixoen familia liberatzea, egun osoa gaixoen ardura izan beharrean eurentzat ere denbora har dezaten eta gaixoak erresidentziara eramateko epea atzeratuz. Eta bigarrenik, gaixoak behar bezala egongo dira atendituak profesionalen artean. Eguneko Zentroran joan ahal izateko ezinduek hileko 34.221 pta. ordaindu beharko dute eta euren buruaz baliatzeko gai direnek, berriz, 49.749 pta.



Eguneko Zentroaren aurrekontua 8 ntiloikoa da.

Lagun-eko eraikentza enpresa txikientziako gune bilaka daiteke

Gillenno Garate alkateak esandakoaren axabera, "elkarrizketak martxan daude ICO-rekin (Instituto de Cre'dito Oficial), berau baita aipatu tenenoren jabea". Helbunta, Lagun kokatu zen eraikuntza hura industria eta zerbitzu enpresa txikientzat egokitzea izango litzateke, "Industrialdean kokatzeko txikiegiak izan arren, enpresa horiek herrian beren tokia izan dezaten". Enpresaren batek azaldu du interesa dagoeneko. Udalak lehen pausoak eman ditu eta momentuz, eraikuntza industrial zaharrak errehabilitatzen eta martxan ipintzen dituen enpresa espezializatu batekin harrernanetan jarri da. Gauzak bide onetik badoaz, "hilabete gutxi barru proiektua martxan jartzea posible izango da", adierazi du Garatek.



Gablola GESTORIA

- Ibilgailuak
- Garraioak
- Gai orokorrak

San Frantzisko, 22 - Tel-Faxa: 74 07 97 - ELGOIBAR



AURORA
ASEGURUA



€ 4140.44

Olaso industrialdeko. Olasope, 66-A

Tel-Faxa: 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

GOAZ

NTZERKI TALDEA

XABIER
MENDIGURENen

LARRIALDIAK



Azaroak 7, ostirala, gaueko 10:30etan

HERRIKO ANTZOKIAN



ELGOIBARKO 1ZARRA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



TOFRIIRRCI BURRI

3. adinari zuzenduriko gehigarria

30. zkia - 1997ko urriaren 31

01,

Jesus Egaña eta Luisa Rementeria "Cubako irla bakarti batera eraman gintuzten"

Jesusek 75 urte bete zituenean urriaren 15ean eta Luisak 72 urte hilaren 9an. Fuengirolan ospatu zituzten urtebetetzeak. Bikote honek bidaiak asko egin ditu batera eta bestera. Kostan ibilitakoak dira batez ere, hondartzan pasiarak ematea eta itsasoan bainuak hartzea gustatzen zaie eta. Orain dela 10 urte inguru Cuban izan ziren eta biei izugarri gustatu zitzaizkien.

Ezkondutuen zinetenean hegazkinean joan zineten ezkon-bidaiara.

Luisa: Bai. Garai hartan ez zen jende gehiegi joaten hegazkinean eta beldur piskat ere ematen zuen baina... Madril, Valentzia, Malaga eta ingurua ezagutu genuen.

Halere, gerora asko ibili zarete kanpoan.

Jesus: Alabak txikiak zirenean Ondarroan apartamentua alokatu eta han pasatzen genuen uztaile. Beranduago hasi ginen kanpora ateratzen.

- Alabak hazi zirenean.

Luisa: Bai. Adin batetik aurrera urtero joaten ginen toki desberdin bat ezagutzera: Benidorm, Costa Brava, Alacante, Fuengirola, Blanes, Torremolinos, Galizia...

Kostara beti?

Jesus: Udako oporrak kostan pasatzea gustatzen zaigu. Ostantzean, Morkaikorekin Aste Santuan batera eta bestera joaten ginen: Candanchura, Panticosara eta abar. Eskiatzera ez ginen joaten baina men-

dian ibiltzea asko gustatu izan zaigu.

- Duela 10 urte Cuban izan zineten.

Jesus: Bai, Odol Emaileen Elkarteak antolatu zuen bidaiak eta geu ere animatu ginen. Oso gustura ibili ginen, benetan ondo pasatu genuen eta oso toki politak ikusteko aukera izan zen.

- Zein toki bisitatu zenuten?

L Astebete La Habanan izan ginen eta beste zazpi egun Varaderon, baina inguru asko ikusi genuen. Varadero zoragarria da. Haiek hondartza luze eta garbiak! Eguraldia ere bikaina... Jendea ere oso jatorra da baina pena ematen du nola bizi diren ikusteak. Ondo elikatua daude, hori bai, baina ez zara ondo sentitzen zuk aukera guztiak izan eta beraiek dena hain murriztua dutela ikustean. Dirua izan arren, ezin zuten edozer gauza erosi. Guk boligrafoak, arkatzak, kamisetak.. denetik eraman genuen hemendik han banatzeko eta asko eskertzen zuten.

- Jatekoarekin zer moduz?

Jesus: Bat ere arazorik gabe. Gainera, Cuban mariskoa oso merke dago eta benetan ona. Nik kokrodiloa ere probatu nuen. Haragi zuri-zuria zeukan. Zapoak ematen zuen. Oso goxoa.

irla bakarti batera ere joan omen zineten.

Bai, egun batean itsasontziz eraman gintuzten. Ez zen inor bizi eta ingurua zoragarria zen. Benetako paradisial Itsasontzia ere oso dotorea zen, Fidel Castrok erabiltzen duena zela esan ziguten.

Zein herrialde bisitatu nahi zenukete?

Jesus: Niri Paris ezagutzeak ilusio handia egingo lidake.

Luisa: Nik beti izan dut Erromara joateko gogoak, baina hemendik aurrera gero eta zailagoa izango da. Ni neure alperteren hasi naiz.

- Bidaiatzeak osasuna ematen al du?

Jesus: Dudarik gabe! Niri hondartzara joan, pasiarak eman eta itsasoan bainuak hartzea bizipoza eta osasuna ematen dizkirate.

Luisa: Hiru bikote joaten gara eta ederki pasatzen dugu. Gauez ez gara ateratzen dantzara, guri lasai-lasai ibiltzea gehiago gustatzen zaigu.



Jose Ociria eta Weodora Atlazahal:

"8 urtian egon ginan nobixo jaixetako erromerixetan bakarrik ikusten"

Urriaren 8an urrezko eztaiak ospatu zituzten. Izan ere, 50 urte daramatzate ezkontuta eta horrelakoak egunero izaten ez direnez, elkarrizketaxo bat egin nahi izan diegu ea, bide batez, elkarrekin horrenbeste denbora bizi izatearen sekretua zein den jakiten dugun. Josek 84 urte ditu eta Teodorak 76.

- San Roke badarakoa bat eta Soraluzekoa bestea. Nola ezagutu zenuten elkar?

Jose: Gerria bukatu zanian Arrateko jaixetan erromerixara jun ginan lagun batzuk. Han bi neska gazte ikusi, hurreratu, neska laguntzia ein eta holaxe hasi ginan.

- Domekero elkartzen zinenten.

Teodora: Bai, jaixetan. Maltzagan erromerixia egoten zan eta nere anaixak soinua jotzen zaban. 8 anai-arreba ginan eta danak juten ginan baserritxik Maltzagara. Hantxe elkartzen nitzan Joserekin.

- Dantza eta dantza.

Jose: Dantza asko eitxen gendun, bai: txotisa, trikitixa, pasodoblia... Danetik piskat.

- Gero, neska laguntza ezinbestekoa izango zen, ez?

Jose: Horixe baietz! Maltzagatik Soraluzera, baserriraino laguntzen nion eta handik bueltan Elgoibarrera. Ilunetan, linternia lagun hartuta juten ginan. Lehenengo oinez eta biharrerako bizikletia erosi nabanian, bizikletiaikin.

- Zenbat urte egin zenuten nobio?

Jose: 8 izan zian danera.

- 8 urte jaiegunetan bakarrik ikusten?

Orduan hola izaten zan, ez oin bezeia egunero ikusten. Zortzi urte ibili ginan hola eta gero ezkontzia erabaki genduan. 1947ko urrian 8xan ezkontu ginan Esoziako elizan. Gero nere baserrixan bazkaldu gendun.

- Erromeria behintzat egingo zenuten?

Teodora: Hiru anai soinujole nakazen, zela ez zan erromerixarik egongo!

- Erretraturik atera al zenuzten?

- Ez, orduan, ezkontu eta gero, egun batian ezkontzako erropak boltsan sartu eta Eibarrera juten zan, han erretrato haundi bat eitxen zizuen.

- Baserritik kalera jaitsi zinenten. Aldaketa handia?

Teodora: Neretzat ondo egon zan. 8 anai-arreba ginan eta sei mutilak. Ama eta aitxa hil ein jatazen eta ahizpa ezkontu. Nik lan asko ein bihar izaten naban baserrixan. Gero, kalian, bi lagun bakarrik ginan eta askoz hobeto.

- 50 urte ezkontuta. Sekreturik?

Jose: Osasuna eukitzia oso inportantia da, maitxatzia eta errespetua

eukitzia.

Teodora: Gainera lehen betirako ezkontzen ginan. Oin erretzo apurtzen dia matrimonixuak. Baina sekretorik ez dao.

Ospakizun polita egin al zenuten urrezko eztaietan?

Jose: Oso politxa. Jende asko akordau zan eta erregalo mordo bat jaso genduzen. Bilobak dantzan, neska txixak bertsua... Berriz erreprentatzeko prest.

Baloraziorik egitekotan?

Teodora: Lelengo urtiak izan zian oso politxak, ilusio haundixakin bizi ginan aurrera begira. Oin aurrera baino gehixo, bizi dogun egunari begira bizi gera. Baina gustura.





ETA ZUK, z_tR DIOZU?

Memoria

Jubilatuen Etxean memoria lantzeko ikastaroa ematen ari da **Adindu** elkarteak. 12 orduko ikastaroa da eta helburua memoria adin guztietan landu behar dela jakinaraztea da. Izan ere, adin batetik aurrera ahalmenak galtzen baditugu ere, horrek ez du esan nahi memoria zahartu egiten denik. Gertatzen dena da askotan egoera pasibo batera pasatzen garela eta, arin mantendu nahi badugu gorputza gimnasia egin behar dugun bezaia, memoria egoera onean izateko aktibo mantendu behar dugu. Ikastaroaren hasieran memoria zer den eta nola funtzionatzen duen irakasten dute. Memoria ez da berez funtzionatzen duen gauza isolatua. Izan ere sistema nerbioak eragina dauka eta, nola ez, baita ariketak ere nola edo hala lantzea.

Ikastaroa erabat praktikoa da eta hiru faseetan banatzen da. Lehenengo fasean memoriak informazioa zentzumenen bidez jasotzen duela ikusten dute. Ikusmena eta entzumena lantzen dituzte lehen bi egunetan. Arreta ere lantzen dute ariketa desberdinen bidez. Bigarrenik, jaso duten informazioa gordetzeko nola ordenatu eta sailkatu behar duten ikasten dute eta azkenengo fasean erreferentziak bilatuz, memoriak jasotako eta gordetako informazioa nola gogoratu lantzen dute. Hori guztia ariketa desberdinen bidez.

Kontua da, Jubilatuen Etxean antolatu bada ere, era honetako ikastaroak adin guztietarako izaten direla aproposak. Izan ere, gaztetan memoria txarra duen jendea ere badago.




Maria Jesus Saenz
72 urte

Aspaldiko gauzak oso ondo gogoratzen ditut baina gertatu berri diren gauzak konturatu gabe ahazten zaizkit. Lehen oso memoria ona nuen, baina adinarekin... Ikastarora gustura etortzen naiz eta etxerako bidaltzen dizkigun lanak ere egiten saiatzen naiz. Entretenigarria da gurutzegramak egiten ditugulako.



M. Karmen Garate
69 urte

"Nik oso gaizki sentitzen dut oroimena eta horregatik hasi naiz ikastaroran. Gaztetan poesia asko ia irakurri gabe ikasi nituen, eskolan entzunda. Oin ere lengo gauza asko ondo gogoratzen ditut baina beste batzuk ahazten ari zaizkit. Gaur bertan pelukeria joateko txanda hartuta neukan eta ahaztu egin zait. Oroimenaren gimnasia egin behar da eta Jaungoikoari esker itxaropena euki".



Seve Martin
54 urte

"Ni oraindik nahiko ongi nabil oroimen aldetik. Egia esan, ez zaizkit gauza gehiegi ahazten, baina hobe da prebentzio neurriak hartzea. Ikastaro hau aproposa iruditu zitzaidan gerora izan ditzakedan arazoei aurre egiteko".



Daniel Legorburu
70 urte

"Ni memorixa aldetik inoiz ez naiz ondo ibili, sekula, gaztetan ere ez nitzan abila izan eta oin, urtietan aurrera ein ahala, orduan eta bajuo. Holako gauzak ondo etortzen dia burua astintzeko, kalte behintzat ez dabe eitxen. Sekula ein beko ariketak eitxen ditzugu, kruzigramak eta 'sopa de letras' eta holakuak. Etxera jun eta entretenu eitzen naiz memorixia lantziakin bat".



Gauza bakoitzak bere ordua du

Biologo talde batek ekintza desberdinak egiteko ordurik onena zein den aztertu du. Horretarako, kontuan izan dira gizakiaren biorritmoak eta garbi geratu da egunean zein den garairik onena ekintza bat edo beste egiteko. Hona hemen:

1.- Goizeko 7etatik 8etara da sexua praktikatzeko ordurik aproposena. Goizeko lehen orduetan izaten dute gizonek testosterona mailarik altuena.

2.- Goizeko 8ak eta 10ak bitartean gosari eder bat hartzea komeni da, bai eta bitaminak hartzea ere. Ordu horretan metabolismoak oso erraz erretzen ditu hartutako elikagai guztiak.

3.- Goizeko 10etatik eguerdiko 12etara buruaren ordua da. Errendimendua oso konpletua da eta irudimen eta sormen lanak egiteko garairik onena da,

4.- 12etatik 14:00etara da

bazkaltzeko tarte egokia.

5.- 14:00etatik 15:00etara gorputzak atsedena behar du. Siestarako ordua da.

6.- 15:00etatik 17:00etarako da ariketa fisikoa egiteko ordurik aproposena. Oinez, bizikletan edo gimnasia eginez ematen dugun denborak emaitza hoberenak ordu horietan izaten ditu.

7.- 16:00etatik 18:00etarako da buruko gimnasiarako garairik onena, irakurketarako edo kontuak egiteko, alegia.

8.- 18:00etatik 20:00etarako da etxetik atera eta jendarekin erlazionatzeko ordurik egokiena. Harreman sozialetarako txanda.

9.- 20:00ak eta 22:00ak bitartean afari arina egitea komeni da.

10.- 22:00etatik 23:30etara ohera joateko ordua da. Gorputzaren tenperatura jaitsi eta lotarako prestatzen da.

ERREZETIA



Consuelo Otaegi Txapiroiak fipularekin

OSAGAIAK:

Txapiroiak, tipula, piper berdea, olio eta gatza.

PRESTAKETA

Piperra eta tipula dexente txiki-txiki egin behar dira juliana erara. Ondoren, oliotara bota eta bigundu arte mantendu behar da bertan, gorritu arte. Gatza ere bota behar zaio. Ondoren, txapiroiak garbituta botatzen dira gainera eta egosten laga behar da. Txapiroiek ura botatzen dute, saltsa moduko bat egin arte. Eginda claudenean, bakoitzak erabakiko du tinta beltza bota ala ez. Tipula gustatzen ez zaionak pasapurean pasa dezake piperra, tipula eta txapiroiek bota duten ura eta saltsa horrekin lagundu platera. Dena dela, dagoenetan oso goxoa geratzen da, tipula eta piper berdez inguratua.

ERREZET

GENEGARRI HONETAKO ULABOKATZAILEAK: Zanarren Biltzaileak eta Iuzendaritza.



Ortopedia

Ortesi, protesi eta laguntza teknikoak

Itziar Sarasketa Tekniko Ortopedikoa

San Bartolome, 19
Tel/Faxa: 74 35 62



DEBA

GARAIA

INMUEBLE
ETA
FINANTZA
AGENTZIA

SALMENTA ETA INFORMAZIOA

Errosario, 34 Tei: 74 42 83 Faxa: 74 42 53

77 urte dituen Elgoibartar hau gaixotasunak eraginda 50 urte daramatza Arjentinan, Bolibar izeneko zonan. Izan ere, gaztetan, itsasontzi batean marinel izan zen. Arjentinara egiten zuten bidaia. Behin gaixotu egin zen eta Buenos Aires-eko ospitalera eraman behar izan zuten. Bost urte egin zituen ospitalean. Tarte horretan ezkondu egin zen eta bizirnodu berri bati ekin zion herrialde ezezagun hartan. Sei hilabete pasatzera etorri da Elgoibarrera eta joan aurretik berarekin egon nahi izan dugu, kontu asko eta benetan politikatu eta.

JULIAN BILBAO

"Konturatu gabe, 50 urte daruat Arjentinan"

—Zu ez zinen Ameriketara dirua egitera joan.

Ez, ez. Soldautzan marinan tokau jatan eta bueltan merkantzia barko batian lan eitxia eskaini zien. Ezkontzia nahi naban eta dirua bihar zan. Gustora hasi nitzan barkuan. Genovatik Buenos Aires-era eitxen genduan biajia eta 1.000 pertsona eruaten genitxun, emigrantiak. 26 urte nakazela, biaje batian gaixorik ipini nitzan. Bularretik ipini nitzan gaizki. Buenos Aires-eko ospitalian bost urte pasatu nitxuan, eta gainera medikuek esaten zeben ez zaula ezer eitxerik, oso gaizki neuala.

—Elgolbarren zegoen andregai izan zen sendagairik onena.

Hala da, bai. Astero

karta bat bialtzen zian eta animuak ematen, bera zan nere indarra. Bestela oso zaila izango zan aguantzia, ez gaixotasunagatik bakarrik, baitxa herrimin haundixa nakalako ere.

—Ahalordez ezkondu zinen.

- Bai. Nere anaixak ein zaban nere papela eta benetakozko ezkontzia izan zan, elizkizuna, banketia, inbitauak... dana. Ezkondu eta gero nere andria Arjentinara etorri zan, nere ondora. Euskal Herrixan zati bat etorri zan berakin batera.

—Zein zen zuen bizimodua?

- Hasieran ni ondiokan ospitalian nauan. Nere emaztiak Sigman eitxen zaban lan eta handik josteko makinia ekarri zaban. Josten eitxen zaban lan eta bi-

xon bizimodua etarutzen zaban aurrera. Gero, ondo ipini nitzanian, ofizina baten hasi nitzan lanian. Konturatu gabe, geure bizimodua han ein genduan eta 50 urte daruat bertan.

—Lau seme-alaba izan zenuzuten.

Hiru mutil eta neska bat. Eta 11 biloba eman die. Urte batian Eibarren bizi zan iloba etorri zan bisitan. Oin nere serne batekin dao ezkondu, bi seme-alaba dake eta Vitorixan bizi dia. Bilobak "zorianak zuri" euskeraz kantatziak poza ematen dia.

—Euskara oso ondo mantendu duzu.

Ez dot pentsatzen, han ez dot euskeraz berba eitxen eta. Asko ahiztu jata, gainera oin batua edo hori eitxen dozue eta ez jata asko gustatzen.

—Ikasi al duzu tangoa dantzatzeko, Julian?

- Arjentinara jun aurretik ere eitxen genduan tangua, pasodoblia, balsa... danetik. Asko akordatzen naiz hemengo erromerixekin. Han jaixak etxietan eitxen dia eta ez jata gustatzen. Aurten, C.D. Elgoibar-en igoeria izan zanian txarangiak urten zaban. Ni hemen nauan eta dantzara jun nahi naban, baina anaixak esan zian oin ez dala lehen bezela dantza eitxen kalia. Penia eman zian.

Betirako Arjentinan?

- Gustauko jatan etortzia baina hiru seme daude Arjentinan. Andria oin dala 25 urte hil zan akzidentian. Aurten sei hilabete eingo ditxtidaz Elgolbarren eta beste sei Arjentinan. Beti hola eitxiakin gustura eongo nitzake.

EESTEEK ESANA

"Ameslari porrokatua, erromantikua eta Euskal Herrixa asko maitxe daban pertsonia da"

LUIS BILBAO, anaia





Josefina Baskaran Egia

(1894-1945)



- 1894ko ekainaren 29an jaio zen San Andres de Etxebarriako Aizta baserrian.
- 5 anaia-arreba izan ziren, bera hirugarrena. Herri horretan egin zituen gaztetako ikasketak.
- Geroago hainbat lan egitea tokatu zitzaion: soroan, etxean laguntzen eta errekaduak egiten.
- Neska gazte kuadrila batekin San Migeleko erromeriara joaten zen. Bertan ezagutu zuen senarra. 20 urterekin ezkondu zen Belarretako Francisco Ansolarekin, hango maiorazgoarekin. 7 seme-alaba izan zituzten.
- Baserrian lan ugari egin zituen: etxeokandrea, soroko lanak, baratzeokak... Ardiaren ilearekin artilea egin eta galtzerdiak josten zituen. Klabelak, larrosak, menda, aingeru lorak etab. egokitasunez lantzen zituen.
- 1922an, baserrietik gertu etxe berria eraiki zuten, "Belarreta Berri". 1943ra arte sagardotegia eduki zuten. Inguruan sagasti handia ipini zuten. Bezero ugari izaten zuten, herrikoak eta kanpokoak. Orduan ere bazeukan jendeak jan eta edan eta bertso eta kantuak abesteko zaletasuna.
- 1922an zaldia eta "tibuli" izeneko gurdia erosi zituzten. Tibuliarekin joaten ziren Eibarrrera. Markinara eta Durangora salmentara.
- 1939ra arte egin zuen Josefak sukaldaritza beheko suan.
- Debozio handia zion Kannengo Amabirjinari.
- Langilea. apala, sinesmen handikoa, izaera atseginekoa eta zoriontsua zen Josefa bere familiarekin batez ere.
- 1945eko otsailaren 17an hil zen Belarretan 51 urterekin.

Juanito Gorostiza



Fridak Leonen urte darama Le6n-en albai-taritzan ikasten. Mojen erresidentzian dago eta lagun mordo egin ditu bertan.

Outirtfavvo

"Cantabriakoak, Asturiaskoak, Alacantekoak,... leku askotako gazteak gaude".

Gustura dago Lenen. Ez da oso hiri handia. Ikasle mordo bat dago eta giro polita sortzen da. "Ostiral gauetan irteten gara parrandan eta gainerako egunak ikasten pasatzen ditugu". Goizean praktikak egiten ditu Unibertsitatean eta arratsaldean klasera joaten da.

BARREN jasotzen duela esan cligu. "Erresidentziako lagunek aldizkarian zer jartzen duen azaltzeko eskatzen didate. Nire osaba zein den esaten diet nik, nire lagunak eta ezagunak zein diren...".

Mutil-laguna ere topatu du Fridak Leonen. "Asturiasekoa da eta nire klasean dabil". Oraindik beste hiru ikasturte geratzen zaizkio ikasketak amaitzeko eta bertan Ianen bat topatuz gero, gustura geratuko litzateke Leonen bizitzen.

Etxekoen falta igartzen du, "batez ere azterketetan; eta amaren jatekoa ere bai". Elgoibarrera Aste Santuan, Gabonetan, jaizubietan eta oporretan etortzen da.

V/AJES **nee** BIDAIAI
BILBRO EXPVSS

**bidaia agentziak
babestutako atala**

Foruen plaza, 3
Tel: 74 39 12

**HERRI-GAIN
ERRETEGIA**

San Pedro auzoa 4
(IT 74 30 40) ELGOIBAR

Truk

San Frantzisko, 27
Tel. 74 26 21



Argazki hau Txomin Mujikak ekarri digu. 1960. urtekoa da, Aita Agirre plazan aterakoa. Eskolatik irten eta gero, arratsalde partean jolasean zebiltza-

Ia atera zuten erretratu hau.

Ezkerretik hasita hauek dira mutikoen izen-abizenak:

Javier Egaña, Luis Mari Perea, Juan Luis Arregi, Rikardo Gorriti, Manu Pagola, Jose Ignacio Jauregi, Txomin Mujika, Anton Pagola eta Jose Luis Solas.



leaffroff gair "(a)-C4 Wida(

*1997ko urriaren 25ean hil zen
57 urte zituela.*

*Eskuzabala eta ona
izan zaitugu, Ramon,
familia barnean oso maitatua
lagunartean guztiz estimatua
hutsune handia uzten duzu
gure bihotzetan, ordeztezina benetan,
baina betiko biziko zara
gu denon artean*

Zure familiak

"Boloetan trukuak diaz inportantienar



Jose irusta

- **Adina:** 33
- **Beste herri kirolak egiten duzu?**
Ez, baina danak gustatzen jataz.
- **Erromeria ala diskoteka?**
Erromerixia nahixo.
- **Siestarik egiten duzu?** Askotan;
astixa dauanian, beti.

- **Euskadiko txapela lortzen duzun leben aldia da? Bai,** lehenengua da. Esperantzia beti eukitzen dot baina aurten pentsaube etorri da. Ekipoko bat, Jabier Osoro, bentaja haundixakin zebilen. Harek 18 txirilo zakazen eta nik eta anaiak 14. Jabierrek huts ein zaban eta ni, berriz, nahikua ondo ibili nitzan.

Boloetan zenbat da teknika eta zenbat zorzea? Teknikia nik gitxi dakat. Hor izaten da azpi-jana eta gai-jana esaten dana. Azpi-jana eman ezker bo-liak gora eitzen dau. Bolia ez da biribil-biribila, alde batian zuluak dazka. Orduan zuzen ipini biharrian piskat bat okertu barrurutz eta boliak gora gehixo eitzen dau. Aldapia daonian ona izaten da bolia beheruntz juten dalako. Aldaparik ez daonian aIrrebes; goi-jana eitzen da. Indar gutxi bihar danian eitzen da.

Zorzea behar da orduan. - Suerteripe ez dao ateratzerik. Lehenao aterata nao ni Gipuzkuako txapelduna, eta Euskadikua baino zailao da. Gipuzkuakuan zortzi bolatoki izaten dia, eta Euskadikuan lau. Zortzi bolatokitxan suertia eukitzia gaitzaua da, regulartasuna eruan bihar da.

- **Zenbat titulu lortu dituzue Sanmigeldarrek boloetan?** Danera aterako gendun zortzi. Normalian leherieriguetan ibiltzen gera.

- **Bikoteka ere, zure anaia Agustinekin batera txapela lortu duzu.** - Lehenao ere aterata gaude bai Gipuzkuakua bai Euskadikua. Sekreturik? Ez dakitx, bestiak eskasauak izango dia, itxuria. Suertia esango neuke eta

praktikia ugari.

- **Bolo-jokoa galtzen ari dela iruditzen zaizu?** - Ez dakitx ba. Lehengo urtian ekipo gazte bat atera gendun San Roke, San Migel eta inguruko gaztiek. Alde hortatik behintzat zeozer erakusteko bidia badao.

- **Eta zuek nondik ikasitakoak zarete?** - Lehenao zaharretatik. Lehengo urtian omenajia ein genion bolari-xa, Sabin Oregi, haura oso ona izandakua da. Ekipuan ere badakagu lehenao oso ona izandakua, "Otsua", Jose Inazio Kortaberria. Oin ere ibiltzen da baina sasoi ez da lehengua.

- **Arabar erako boloetan asko hobetu omen duzue. Zein da desberdintasuna?** Arabarra ein gendun julo aldera eta kanpeoi izan ginan. Gurretat haura zailaua da. Gu ohitxuta gaude bolia gora edo behera botatzen eta truko asko erabiltzen baina han bolia beti berdin jun bihar da. Arabarrian bolia ohol baten ganian juten da. Ibili ezker errezaia da.

- **Zein bolatoki da zailena?** - San Lorentzo eta San Roke. Indar gutxikin jotekuak dia. Umetxuak eta andrazkuak joten dabe han. San Migel eta San Pedron, hortxe ibiltzen gera gu hobeto. Gauzia ez dao indarrian, trukuak dia.

- **Boloetan apustuak egiteko zale-tasunik bai?** - Jaixetan goizaldera gustatzen jata neure buruakin jokatzia edo Iagunekin ere bai. 500 pta. edo, gitxi jokatzen dot nik eta beti katxon-deuan. Kanpeonatuan apustu gutxi eitzen da, jendia nerbioso egoten da eta.

K I ROL ALBISTEAK

• Behobia- Bonostia lasterketara autobusa

Datorren azaroaren 9an Behobia-Donostia lasterketa korrituko da. Elgoibartik urtero joaten den lasterkari kopurua ikusita azken urteotan Udal Kiroi Patronatuak autobusa jarri izan du. Aurten ere autobusa antolatze-ko asmoa dauka. Beraz, herri lasterketa ezagun horretara autobusez joan nahi **dutenek** izena eman dezakete Kiroldegian (74 44 15).

• Masaia ikastaroa

Udal Kiroi Patronatuak masaia ikastaroa antolatu du azaroaren San hasita. Ikastaroa lau larunbatez luzatuko da, goizeko 10etatik ordu batera bitartean. Lehenago oinarrizko masaia ikastaroa eman zen Kiroldegian eta orain sakontze ikastaroa emango da. Bazkide direnek 3.500 pta. ordaindu beharko dute eta gainerako guztiek 5.000 pta. Izena emateko Kiroldegira joan edo 74 44 15 zenbakira deitu.

Sanmigeldarrek Euskadiko txapela lortu dute boloetan

Taldeka, banaka eta bikoteka irabazi dute

San Migel auzoko bolariak Euskal Herriko onenak direla behin eta berriro frogatzen digute. Pasa den larunbat arratsaldean Euskadiko Bolo Txapelketako azken tiraldia jokatu zen San Pedron eta sanmigeldarrek kirol honetan duten maitasuna erakutsi zuten. Euskadiko zortzi txapelketatik, sei irabazi dituzte elgoibartarrek.

onpetentzia gogorra egon omen da **K**urtengo Euskadiko Bolo Txapelketan. Bai taldeka, bai binaka eta bai banaka, hiru kategorietan lehenengo hiru sailkatuak txirlo baten bueltan ibili dira. Maila handia egon dela esan digute sanmigeldarrek, emaitzak oso berdinduak izan baitira. Partehartzeari dagokionean, 18 talde aritu dira txapelaren bila. Bikoteetan, 43k hartu dute parte eta banakako kategorian 98 lagunek.

Taldeka, San Migel A taldeak 63 txirlo jo ondoren txapela lortu zuen. Bigarren eta hirugarren postuetan San Migel B eta Azolaberriko taldeak 62 txirlorekin berdinduta amaitu zuten. Desenpatean San Migelekoak nagusitu ziren.

Binakako mailan, elgoibartarrak atera ziren irabazle. Jose eta Agustin Irusta anaiek osatutako bikoteak 39 txirlo jo zituen. Bigarren lekuan eibartarrek geratu ziren eta hirugarrenean San Pedro auzoko Jabier eta Manuel Osoro anaiak.

Azkenik, banakako saillean, ezustea gertatu zen. Jabier Osoro 4 txirloko bentajarekin txapelkun izateko aukera handienak zituena izan arren, San Pedroko bolatokian huts egin zuen. Hiru aldiz bota zuen bolari bakoitzak baina Jabierrek bolobat baino ez zuen jo hiru tiraldietan. 18 txirlo zeuzkan aurreko tiraldietakoak eta 19rekin, besterik ez, amaitu zuen txapelketa. Bigarren postuan zegoen Jose Irustak, 14 txirlo zeuzkan markagailuan eta 6 jo zituen, 20 txirlorekin txapelkun geratu zen. Bigarren

postuan berdinketa egon zen Agustin Irusta eta Jabier Osororen artean, 19 txirlorekin amaitu baitzuten biek. Baina Osorok ez zuen desenpatea jokatzetik izan, hortaz, Agustin izan zen bigarrena.

Urte biribila izan da aurtengoa sanmigeldarrentzat. Gipuzkoako txapelkunak eta txapelkunordeak izan dira kategoriaz guztietan. Arabar erako bolo txapelketan ere lehen aldiz lortu dute irabaztea eta, azkenik, Euskadiko txapelkun izan dira. Zorionald

SAILKAPENAK

Taldeka

- 1- San Migel A 63 txirlo
- 2- San Migel B 62 txirlo
- 3- Azolaberri 62 txirlo

Binaka

- 1- Jose eta Agustin Irusta 39 txirlo
- 2- Jesus Mari Diez eta Jose Mari Larreategi 28 txirlo
- 3- Jabier eta Manuel Osoro 27 txirlo

Banaka

- 1- Jose Irusta 20 txirlo
- 2- Agustin Irusta 19 txirlo
- 3- Jabier Osoro 19 txirlo



San Migel A taldea Euskadiko txapelkuna izan da.

EMAIT-ZAK III

Futbola

Haundi 2 - Lizarra 0

Elgoibar 7 - Pedrusko 1 (2. erreg.)

Ordizia 0- Elgoibar 1 (Oho. jub.)

Martutene 2- Elgoibar 1 (1. jub.)

Elgoibar 2- Real Sociedad 1 (**Kad.**)

Real UniOn **3**- Elgoibar 2 (**Inf.**)

Elgoibar **6** - Bilbo **5** (**Neskak**)

Haundi 2- Real UniOn **0** (**Federazio Kopa**)

Eskubaloia

Urnieta 2- Unceta Elg. 28 (Kad. nes.)

Pneumax Elg. 29 - Loiola 30 (Kad. mut.)

Umieta 9 - Pagoaga Elg. 2D (Jub. nes.)

Tecnomeca Elg. 27 - Loioia 23 (Jub. mut.)

Areto futbola

Pasteleria Yurre 2- Elgoibar 2 (1. maila)

Pascual 0 - Elgoibar 4 (**Auton.**)

AGENIA Iik

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 1

12:00 Pedrusko - Zarautz (2. erre.)

15:45 Elgoibar - Cruces (**Oho.** jub.)

17:30 Elgoibar - San Patricio (1. jub.)

Areto Futbola, Kiroldegian

Ostirala, 31

22:10 Elgoibar - Cafe Boulevard (**1. maila**)

23:10 Elgoibar - Pro. Madaya (**Auton.**)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 1

12:110 Elgoibar - Hondarribi (Seniorrak)

Pilota, Ikastolan

Diario Vasco - ETB Kantxa txapelketa

Igandea, 2

11:00 Laskurain/Bengoetxea -

Abad/Altube (**Jubenilak**)

12:00 Esain/Almandoz -

Olaizolal/Pascual (Seniorrak)

• **Behobia Donostia lasterketarako prestaketak**

Elgoibarko korrikalariak hasi dira azaroaren 9an izango den Behobia-Donostia lasterketa prestatzen. Joan den asteburuan Mutrikun herri krosa korritu zen eta M. Eugenia Gonzffiez elgoibartarrak lehen postuan amaitu zuen ernakurneetan. Alberto Revuelta, berriz, bigarrena iritsi zen gizonezkoetan. Behobia-Donostia edo marathoia korritzeko prestatzen aritu diren beste elgoibartar batzuk Legazpi-Zumarraga, 12 km.ko krosean izan ziren. Pilar Arriolak lehen postuan amaitu zuen eta Iñaki Kondek hirugarren postuan beteranoen mailan. Jakin dugunez, beste elgoibartar batzuek ere hartu zuten parte lasterketa honetan: Santi Maiztegi, Jesus M. Makazaga, Costan Nuñez, Iñaki Izagirre, etab. Pilarrek esan digunez, Behobiakoa eta Donostiako marathoia korritzeko asmoa dauka. Pilar bezala beste elgoibartar batzuk ere animatuko dira bi lasterketetan parte hatzera.

• **Eskubaloiko jokalaria Euskadiko aurreselekzioan**

Eskubaloi taldeetan jokatzen duen hainbat elgoibartar Euskadiko selekzio-kide izateko aurreselekzionatu dituzte. Hautatutakoak hauek dira: kadete nesketan Oihana Apellaniz; jubenil nesketan Arianne Peñaranda, Ainhoa Torres eta Amaia Jauregi eta jubenil rnutiletan Kepa Mendikute eta Julen Hernkdez. Haez aparte, Bidasoa taldean jokatzen duen Ander Goikoetxea eta Arraten dabilen Unai Arrieta ere aurreselekzioan izango dira.

Haundiren lehen garaipena etxean

Federazio Kopan aurrera Real Union-i irabazi ostean

Joan den Iarunbatean Haundi taldeko jokalariek lehen garaipena lortu zuten etxean jokatutako partidu batean. Lizarrako "Izarra" talde nafarrak ez zuen golik sartu elgoibartarien portierian baina elgoibartarrek bi gol sartu zituzten. Partiduko 70. minutuan izan zen lehen gola Mikel Elkoro-Iriberi esker eta bigarrena, berriz, Gorka Guarrotxena eibartarrak sartu zuen 94. minutuan.

Haundik bederatzita partidu jokatu ditu liga hasi zenetik. Hiru irabazi egin ditu, bi berdindu eta lau galdu. Ormaetxea entrenatzailearen iritziz, "taldea aso ondo dabil. Etxean irabaztea kostatu egin zaigu ondo jokatu arren. Denboraldi

hasiera honetan espero baino hobeto gabiltza. Gainera, kontuan izan behar da bigarren mailako ekiporik apalena garairela". Haundi taulako 12. postuan dago, denera 20 ekipo izanik.

Federazioko kopa

Federazioko Kopako

itzulerako partidua jokatuzuen Haundik asteartean Mintxetan Real Untn talde irundarraren aurka. Joaneko partiduan bana berdindu zuten elgoibartarrek baina asteartean 2 eta 0 irabazi zuten. Garaipenari esker hurrengo kanporaketarako sailkatu da Haundi.




2. mailan 20 talde daude eta Haundi 12. postuan dago.

Domekan ikastolako frontoian jokatuko dira IETB-kantxauko pilota partiduak

ETBk goizeko 11:30etik aurrera erretransmitituko ditu

Domekan, azaroak 2, "Diario Vasco-ETB kantxa" txapelketa dagozkion eskuz binakako bi pilota partidu jokatuko dira Ikastolako frontoian. Udal Kirol Patronatuaren eta Lagunak Pilota Eskolak elkarlanean antolatutako partiduok ETBko lehen katetik transmitituko dira zuzenean goizeko 11:30etik aurrera. Lehen partidua goizeko 11:00etan hasiko da. Jubenilen kategorian Laskurain eta Bengoetxeak Abad eta Altuberen aurka jokatuko dute. Bigarren norgehiagoka nagusien kategoriari dagokiona da. Esain eta Almandoz-ek osatutako bikotea Olaizola II.a eta Pascualen aurka arituko da.





Weetitottea

MAIER MAIORA

— **Sartu aurretik froga fisikoak egiten dituzte. Zein eratakoak?** - Danetik. Igeriketan estilo danak: krol, atzera, mariposa eta braza. Resistenziako prueba bat, belozidadia...

- **Hezkuntza Fisikoan ikasgai teorikoak ere badaude, ez?** Bai, erdixa praktikua da eta beste erdixa teorikua. Era guztietako asgnaturak daude: medizina, sikologia, pedagogia, informatika, biokimika, anatomia, biologia, enpresariales, estadistika, kazetari tza...

— **Eta guztiek al dute aplikazio praktikoa?** - Suposatzen da baietz. Adibidez, anatonia inportantia da gorputza ezagutzeko; muskuluak nola funtzionatzen daberen jakiteko, klasiak ematerakuan jakitzeko noraino sakatu bihar dozun ikaslia...

— **Beraz, dena ez da kirola egitea.** - Ez. Jendiak pentsatzen dau denbora guztixa gabizela deportia eitzen baina asignatura batzutan kriston totxua ematen dizue ikasteko.

— **Halere, praktika asko daukazu.** - Bai. Lelengo bi urtietan danetik eitzen dozu pisikat: futbola, gimnasia ritmika, atletismua, judua, tenisa, igeriketa... Gero, hirugarren mailan espezializatu eitzen zera hiru kirolekin eta azkenengo urtietan bat aukeratzen dozu. Nik tenisa ein nabari eta gimnasia erritmikua, zintekin, aruekin... Gero, aparte monografikuak ere eukitzen genitxun.

— **Esaterako?** - Eskia, wind surf, eskalada, bizikletia, ur azpikuak, lehen mailako sorospena eta holakuak. Urtian aste bat juten ginan eskiatzera eta guk bukarixa bakarrik ordaindu bihar gendun. Oso ondo egoten zan. Azkenengo urtietan seminarixuak egoten zian. Nik gutxitu fisikuei eta olinpiadei buruzkua ein nitxun. Oso ondo egon zian.

— **Ondo pasatzen da, beraz.** - Bai, ni ez naiz sekula damutu karrera hau aukeratu nabalako. Gustura ibili naiz beti.


- **Eta azterketak? Kontaiguzo nolakoak**

dirin. - Ba asgnaturak bezela parte teorikua eta praktikua dake. Teorikuan teknika desberdinak eta galdetzen dizue, edo estilo bakoitzan historixia zein dan, nundik datorren, nola erakutsi bihar jakon ume bati... Praktikan, ha hori, praktikan jarri bihar dozu dana.

— **Klase orduetatik kanpo entrenatu egin behar izaten al zenuen?** - Zeozer bai, ze teoriarako ikasi ein bihar dan bezela praktikarako ere entrenatu ein bihar zendun.

— **Aurten bukatu dituzu ikasketak. Zein asmo dituzu?** - Oin aerobic ikastaro bat eitzeko asmua dakat eta gustauko jatan hirugarren adinerako zuzendutako kirolari buruzko masterra eixia. Halere, nere asmua irakaskuntzan sartzia da.

— **Gorputza aldatu egin al zaizu bost urte hauetan?** - Aldatu ez baina mantentzen laguntzen dizu. Nahi eta nahi ez kirola eitzera ohitzen zera eta gero gorputzak eskatu eitzen dizu. Ohitxurak hartzen dia, ohitxura onak.



✓ UBI edo LOGSEko edozein adarretatik joan daiteke.

✓ Ikaslearen perfila: kirola, bizitza osasuntsua, ingurugiroa eta forman egotea gustatu behar zaio.

✓ Ikasgaiak: kirolean oinarrituz, biologia, medikuntza, anatomia eta psikologia aztertzen dira eta kirol desberdinetan sakontzen da.

✓ Unibertsitateak eta eskatzen den nota:

- Madril (6,3)

- Lerida (6,3)

- Bartzelona (6,3)

- Leon (6,3)

- Granada (6,3)

- Kanariar irlak (6,3)

- Galizia (6,3)

- Caceres (6,3)

- Balentzia (6,3)

- EHU, Gasteiz (6,7)

1/ Oharra: Unibertsitate guztietan egin behar den froga fisikoan gutxienez 6koa atera behar da.

✓ Irteera profesionalak: kirola, osasuna eta aisialdiarekin lotutako ekintzetan. Gaur egun udal gehienetan polikiroldegi, kirol talde edo kirol instalakuntzetarako gero eta gehiago kontratatzen dira Hezkuntza Fisikoan zentzituak.

91.1150

ril IERNA

Olaso industrialdea, 15
Tel: 74 31 85

-EGINEKO MENIIRK-
-LEIRRNBRBTETAN-

Rabak • Olagarroa • Fritoak
-GRREZ-

Menu ekonomikoak eta
plater konbinatuak

• Meriendak, haurrentzako meriendak, afariak, luntuak, banketeak...
• Enkarguak egiteko aurrez deitu

ESKR EZRZU FIURREKONTUR
INOLRKO KONPROMEZURIK GRBEI

Ordutegia: fistelehenetik ostiralera 7:00-22:30
Larunbatetan 9:00tik aurrera

INTERESEHO TELEFONOAR

OSASUNA

Anbulategia:

Larrialdiak	461111
Txanda hartzeko .	743354
Planning-a	742950
Alkoholiko Anonimoak .	740385
D.Y.A (anbulantzia)	464622
G u rutze Gorria	743864
Mendaroko Ospitalea .	756264
Odol Emaileak	743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	740442
PESA (Eibar) ..	902 10 12 10
Taxi geltokia	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua ..	744366
Udal Kirol Patronatua	744415
Kultura Zerbitzua	742158
Mendaroko Udala	756100
Ongizate zerbitzua .	741008
Udaietxea	741050
Udaltzaingoa	741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	741626
Ki roldegia	744415
Kontsumo Bulegoa	743088
Liburutegia	743525
Musika Eskola	742145
Mintxeta	744315
Parrokia	740842
Postetxea	741547
Gaztetxea	741357

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza ..	740296
Zaharren Biltokia....	740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola	74 21 41
Herri Eskola	74 08 79
I.M.H.....	74 41 32
Herri Institutua	
Arreiture	74 02 67
Ezenarro (Meka)	74 44 80
Ikastola	74 44 41
Pilar Ikastetxea .	74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN	74 41 12
El Diario Vasco	74 40 73
El Correo Español ..	74 10 82
Egin	10 84 21
Zazpiki irratia	74 34 74

A G

E N

D A

5 asteazkena

19:00 MAHAINGURUA
Gaia: Eibar-Gasteiz
autopista
Gaztetxean
Antolatzailea: Gazte
Asanblada

osteguna

22:15 ZINEA
"Sunehaser"
Antolatzailea: Ongarri
Zine Kluba

31 ostirala

19:00 KOMIKI
ERAKUSKETA
Azaroaren 9ra arte
Antolatzailea: Kokoe
Komiki Elkarte

22:00 KONTZERTUA
"Ostias mil" eta
"Cuatro eIavos"
Gaztetxean
Antolatzailea: Gazte
Asanblada

22:15 ZINE KLUBA
"Box of moonlight"
Antolatzailea: Ongarri
Zine Kluba

1 larunbata

19:30-22:15 ZINEA
"Mr. Bean"

igandea

16:30-19:30-22:15
ZINEA
"Mr. Bean"

3 astelehena

22:15 ZINEA
"Mr. Bean"

ostirala

18:30 ODOL
ATERALDIA
Pedro Migel Urruzuno San

22:30 ANTZERKIA
Antezzlana: "Larrialdiak"
Anteztaldea: Goaz
Herriko Antzokian
Antolatzailea: Elgoibarko
Izarra Kultur Elkarte

• • • • EZZI 11

• • 11111 • 1111 • IR • • • • 111 •

21 NE A



Zuzendaria: Mel Smith.
Antzeleak: Rowan Atkinson, Peter
Egan, Sir John Mills.

Bean

1997ko udazkena. Amerikako kuadro-rik ezagunena, "Whistler Mother" tzenekoa EEBBetara eramango dute donazio partikular bati esker. Okasio horretarako kuadroa ikusgai egongo den gate-riako zuzendariak Londresko Gallery Royal-eko aditu bat gonbidatzen du inaugurazio egunerako. Erru handia izango da aditua gonbidatzea, adituaren ordezkariak langilerik traketsena bidaliko baitute: Mr. Bean.

• RRRER 11 || ZEZE 11

• **Odol ateraldia**

Datorren ostiralean, hilak 7, odol ateraldia izango da Pedro Migel Urruzuno 8an. Aurrez deitutako guztiei arratsaldeko 18:30etik 20:30era bitartean joateko aukera izango dutela jakinarazi nahi zaie.

• **Komiki erakusketa interaktiboa**

Kokoe Elkarteak antolatutako lehiaketan parte hartu duten lanen erakusketa gaur, hilak 31, hasi da eta azaroaren 9ra arte Iuzatuko da. Beste sari batzuen artean, ikuslegoaren saria banatuko da. Horregatik, erakusketa ikustera doazenak gustukoak duten komikia sari tzeko aukera izango dute euren botoa emanaz. Erakusgelaren sarreran, paper batzuk jarriko dira eta ikusleak zein lan sarituko lukeen jarri beharko du bertan. Gainontzeko sariak irabazleak eta ikuslegoaren sariaren irabazlea zein den ere azaroaren 9an emango da ezagutzera. Orduetarako: arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara bitartean aste-gunetan eta 12etatik 14:00etara Iarunbat, igande eta jaiegunetan.

• **Goaz taldearen Larrialdiak lana azaroaren 7an**

Elgoibarko Izarrak antolatuta, datorren ostiralean, azaroak 7, Goaz taldeak bere azken obra taularatu-ko du Herriko Antzokian gaueko 22:30ean hasita. Goaz taldea Debako eta Mendaroko aktore amateurrez osatua dago.

• **Kontzertua Gaztetxean**

Gaur, hilak 31, kontzertua izango da Gaztetxean gaueko 22:00etatik aurrera. Bi taldek joko dute: "Ostias mil" eta "Cuatro clavos". Bestalde, Gaztetxean telefonoa jarri artean, harremanetarako 74 13 57 zenbakira dei daitekeela jakinarazi nahi dute.



• **Allzariak margotzeko eta dekoratzeko tekniken ikastaroa**

Eskuz Arte Tailerrak altzariak margotzeko eta dekoratzeko tekniken ikastaroa emango du azaroan zehar. Klaseak arratsaldez izango dira Muguruza ikastetxean. Izena ernan nahi dutenek 74 08 01 zenbakira dei dezakete (Mertxe).

• **Eibar-Gasteiaz autopistari buruzko mahaingurua**

Datorren asteazkenean, azaroak 5, Maltzaga-Urbina edo Eibar-Gasteiz autopistari buruzko mahaingurua izango da Gaztetxean. Gazte Asanbladak bere garaian autopista honen aurkako jarrera azaldu zuen eta gai honi buruzko informazioa eskuratu nahi duenak Gaztetxean lor dezake. Mahaingurua arratsaldeko 19:00etan hasiko da.

• **Langilleentzako ikastaroa**

Elgoibarko Herri Institutuak langilleentzako informatika ikastaroa antolatu du azaroaren 3tik 14ra bitartean. Matrikula doan izango da eta orduetgia 16:00tik 18:00ora bitartean. Ikastaroan Windows 95 programa landuko da. Izena ernateko 74 44 80ra deitu (Susana).

D' I Wti 13 Ca

FARMAZIAK

- Egunez Gaeuz
- 1 Bidasolo* Anduaga**
- 2 Bidasolo* Anduaga**
- 3 Bidasolo Bidasolo**
- 4 Yudego Yudego**
- 5 Etxeberria Etxeberria** (Errosario kalean)
- 6 Etxeberria Anduaga** (Santa Ana)
- 7 Yudego Zabaleta** (teguerdiko 2ak arte)

ANDUAGA: Mendarozabal, 1 Garagarza. Tel: 75 61 42
ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA

- 1 Larunbata Eizagirre**
- 2 Igandea Doña Mercedes**

ONGARRI zine kluba



Zuzendaria: M. Cimino

Antzezleak: J. Seda, W. Harrelson, dera abituako dira autoan bere jatorrien A. Bancroft.

Sunchaser

Zine amerikar independentearen izenpean sailkatutako pelikula da Ciminoren "Sunchaser". Aurretik egindako "El eazador", "La puerta del cielo" edo "Manhattan sur" filmeek nahikoa esaten dute zinegile honen kalitateari buruz. Los Angeles-en bizi den gazte batek minbizia duela jakiten duenean mediku bat bahitzen du eta indio Navajoen herrialdean bila.

Lana

Garajeak

Agurrak

Salerosketak

SALDU

- Bigarren eskuko diskak eta liburuak saltzen ditut. Prezio interesgarria. Zerrenda ikusi nahi baduzu, deitu. **te** 74 12 04
- Erosi berria eta erahili gabe dagoen "Play Station" konsola saltzen dut oso prezio onean. **tr** 74 26 94 (iaiki)
- 90 cm.ko 3 modulo, 90 cm.ko 11-burutegia, 2 siloi (3+2), hi mahui (erdikoa eta izkinarako), alfonbra hat eta lau lanpara saltzen ditn. Berri-herriak. a 12 19 46
- "Grandes maestros de la pintura moderna" hilduma salgai. Estrenatu gabe. 12 tomo. 74 40 85 (gauz)
- Musika ekipoa (tokata, bratia eta kaseta) salgai. 5.000 pta. **tr** 74 40 85 (Gauz)
- Ordenadore pertsonala saltzen da, pantaila, teklatu eta CPU arratoiarekin, 486 A40 MHZ, HD 210, RAM mh., Word 6,0, Acces anti-virus, cotawin eta abarrekin. **Tr** 15 01 01 (Jose Mari)

sEROSIS

- Txahola erosiko nuke Elgoibarren edo inguruan. **Tr** 74 37 87

Partikularrak

- Marrazketa tekniko eta diedrikoko klaseak hartuko nituzke euskaraz. **tr** 74 27 78 (Sara)
- Lizentziatuak fisika eta kitnikako klase partikularrak emango lituzke. Maila guztiak. a 74 43 98/74 08 09 (Marian)
- Marrazketa tekniko eta diedrikoko klaseak ematen dira. 74 43 98 (Biaki)
- Fisika eta matematika klase partikularrak ematen ditut. **tr** 74 13 34 (Andoni)
- *Irakasle titulodunak Lehen Hezkuntza, DBH eta ettskarazko klase partikularrak ematen ditu. **te** 74 09 72 (Garikottz)
- Matematika, kontabilitatea, praktika administratiboak, kosteen kontabilitatea eta aharrri buruzko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak eta talde mugatuak. Esperientzia dut...**ar** 74 21 65 (Javi)

ESKAINZA

- Mutil hat behar da asteburuetan lan egiteko. **Tr** 74 02 41
- Neska euskalduna behar da etxeko lanak egin eta hi haur zaintzeko. **w** 74 32 94
- Neska euskalduna behar dut etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Hohe esperientziaduna. **tr** 74 12 33 (21:00eiatik aurrera)
- *Neskatala hat zaintzeko neska euskalduna behar da. **ir** 74 41 54 (Mertxe. Gauz)
- Bi pertsona nagusi zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona hat behar da. Goizeko 9etatik arratsaldetik 8etara. **tr** 74 29 30 (arratsaldetik 3etatik 4etara)

sESKAERA*

- Sukaldaria eskaintzen da 15 urteko esperientziarekin. a 15 08 38 (Angel)
- Neska eskaintzen da umeak edo pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta informeeekin. **ir** 58 40 31 (Elguibar)
- Neska gaztea eskaintzen da etxebizitzak, portalak, bulegoak eta bestelakoak garhitzeko. Esperientzia daukat. **Tr** 74 06 09 (Marisabel)
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. **>r** 74 07 32 (M. Angeles)
- Neska euskalduna eskaintzen da tabernan lan egiteko edo umeak zaintzeko, Esperientziarekin. **tr** 17 47 70
- Emakumea eskaintzen da gaixoak edo umeak zaintzeko, Esperientziarekin, **tr** 17 47 70
- Gizona eskaintzen da pulidore lanak egiteko, a 17 47 70
- Mutil gaztea eskaintzen da 2, maitako igeltsero edo enkofraizaila lanak egiteko. **tr** 17 47 70
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. **tr** 74 25 42

- Barne Komertzio titulochina dendarari lanetarako edo umeak zaintzeko eskaintzen da. **tr** 74 10 09

- *Ileapaintzaile titulodunak edozein lan egingo luke. **tr** 74 22 91 (Kristina)

- Gutxitu Fisikoen Hezitzaile eta Klinika Laguntzaile tituloduna pertsona nagusiak edo haurrek zaindu edo beste lan hartzuk egiteko prest. **mr** 74 34 68

- Haurrak zaintzeko neska eskaintzen da. Egun osorako. **tr** 74 32 98


- Garaje marratluna saltzen dut Karakolaren azpian. Garajes Madarixa. **te** 74 04 34
- Garaje itxi hat saltzenclut Kiug-Kong-en. **u** 76 17 95
- Garajea saltzen da Juan Mutterza kalean. 74 12 04
- Pista heltzean garaje itxia alokatzen dut. 74 03 81/ 74 15 01 (Gatetz)
- Garajea alokatzen da San Roken. Aterpe tabernaren azpian. **ir** 74 33 39
- Bi garaje alokatzen ditut Santa Ana kalean. **tr** 74 05 49 / 74 09 09
- *Trenhede kalean garajea salgai. Oso handia da, errulota edo hi kotxe sartzeko beste. Sobrepisoa dauka. **cr** 74 01 33

Agurrak

- Zorionak Maria Idiakez eta Ion Garateri hilaren 30ean 11 eta 10 urte bete zituztelako. Ikastolako 5. mailakoen partez. Zorionak Mariari lag,un Saioa eta Ainhoaren partez. Egun zoriontsua pasatu.
- Zorionak Sheila Perez bihar, hilak 1, 15 urte beteko dituelako. Adrianen partez.
- Zorionak Beatriz Fuguereidori gaur, hilak 31, 12 urte hete dituelako. Institutuko DBHko 3. mailakoen partez,
- Zorionak Ainhoa eta musu mordo bat! B. eta M.



- Zorionak Oihane Gomez de La Fuenteri urriaren 30ean 6 urte hete zituelako. Bere lagun eta familiarren partez.



- Zorionak Xabier Lopezi gaur, hilak 31. 8 urte hete dituelako. Gurasoen eta Ifigoren partez, Baita aitxita eta amaren partez ere.



- Alberto, Susana. Ein dozue zuena azkenian! Bueno, Susarena latzaua izan da, baina merezi zaban, ez? [a umia eitzak

eman dizuen ategin bera ematen dizuen ume hori haztiak. Zorionak KOKOEn partez.



- Zorionak Aitor Diegori hilaren 29an urte-hete egin zuelako. Zorionak zuri, zorionak hetu, zorionak Attor, zorionak

beti!!! Zure arreba Nagore eta gurasoen partez.

- Zorionak Ander de la Aradari azaroaren 5ean 2 urte beteko dituelako. Bere guraso, aitxita eta amama, osaba eta lehengusuen partez.



- Hilaren 26an Madalako elizan Asier Rodriguezez Blanco baitaiua izan zen. Berarekin hatara bere gurasoak, lau aitxita eta 8



birraitonak egon ziren. Zorionak Maria Blanco eta Marei Rodriguez-i.

- Zorionak Inigo Olerori zapatua. 13 urte heteko dituelako. Guraso eta anaia Gorkaren partez,



- Zorionak Iraitzi 3 urte beteko dituelako. Fatnili osoaren partez.



- Zorionak Isabel Bennejori azaroaren 2an 35 urte heteko dituelako. Bere senar eta alaba Cristina eta Atnaiaren partez. Zorionak haita ere koinata eta iluben partez. Lasat, ez dira asko eta!



- Zorionak Mari Jose Martin Leivari azaroaren 9an urteak heteko dituelako. Guraso, ahizpa, koinatu eta iloba Andoniren partez.



ZELETA

BARAZ KIAK



NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA



iralltakzio "tooldtaal otolti iffa4alloa Zalb/(600

ZELETA BASERRIA « San Migel auzoa ELGOIBAR

KONPARA EZAZU MATERIALEN KALITATEA

Mendaroko Udalaren
alboko etxeak

Marmolezko
portalak/Gineako
egurrezko enpanelatua

- I Gineako tarima
- I Abey-zko zokaloak
- I Sukalde, gela eta egongelan eskaiola
- Eskilarako eskubandak
- Gineako egurrezkoak
- Antena parabolikoa
- PVCzko pertsianak
- Igogai[ua
- Kalefazioa eta ur beroa txapazko berogailuekin
- Roca etxeko komunak
- I Isolamendu termikoa
- 14.000.000 ptatik aurrera
- Etxeak laister eskuratzeko aukera
- (12 bakarrik geratzen dira)



Promociones Inmobiliarias Mendaro

Tel: 75 51 68 - (94) 491 23 19



GARAY



**HARATEGIA
URDAITEGIA**

San Frantzisko, 9
Tel: 74 13 92



Karibera!

GINZKOAKO HARAKIN ETk
TXARKUTEROEN ELKARTEAREKIN.
"KARBERA BIDAIA"
PORRARAKO GINARRIAK

- 1- 1997ko azaroan egingo da porra.
- 2- Real Sociedad-ek eta Athletic-ek jokaturako partiduez osotuko da porra.
- 3- Bazkide diren harategi eta txarkuterletan eman eta jasoko dira boletoak.
- 4- Elkarreak askatasuna emango die harakin/txarkuteroei boletoak banatzeko. Horrek esan nahi du harakin/txarkutero bakoitzak erabakiko duela boletoak nolo banatu, hau da, zenbat diru gastatu beharko duen bezeroak boleto bat lortzeko.
- 5- Horategi edo txarkuteria bakoitzak erabakitzen duen sario jorriko da astero.
- 6- Irabazlea bi partiduen emaitzak asmutzen dituena izango da. Bat baino gehiago balego, zozketa egingo litzateke asmoztaileen artean.
- 7- Saria, ahal bada, ondorengo astelehenean emongo da.
- 8- Iikloaren azkenean, partehartzaile guztien artean, Kariberako bidaiaria bat zozketatuko da bi pertsonarentzat.
- 9- Gipuzkoko Harakin eta Txarkutero Elkartearen Biltzarrean parte hartzen duten guztien artean Kariberako bidaiaria bat zozketatuko da bi pertsonarentzat.
- 10- Bezeroen urteko zozketa Biltzarrean egingo da, ordura arte aurkeztutako boleto guztien artean.
- 11- Elkarreak antolatutako zozketa dela-eta bazkideei emondako boletoak baino ez dira onartuko.



Lonz Karibera dohainik
Gipuzkoako Harakin eta
Txarkuteroen Elkartearekin.
Gure porran parte hartu besterik
ez duzu. Gainera, astero sari
ederrak irabaz ditzakezu.

0...m⁰Y4
W0s